

ELKARTEAK

ELKARTE MOTAK

Lau elkarte mota bereiz ditzakegu:

Elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak.

Basque Cruises enpresak aliantza estrategiko bat du hainbat jatetxe eta sukaldari famatuekin. Bien artean dugun aliantza bi enpresentzako onuragarria da: guk irabaziak izango ditugu prestigio handiko jatetxeak gure itsasontzietara bezeroak erakartzeko baliabide izango baita, eta bestalde, ospe handiko jatetxeek ere irabazi handiak izango dituzte egunero ehunka pertsoneri otorduak eskainiko baitizkie.

Itun honen bidez, bi enpresen arteko lehia ezabatuko da, bientzako oso onuragarria izango baita aliantza estrategiko hau. Honela, Basque Cruises enpresak ez du sukaldari profesionalak kontratatzekeo kapitala inbertitu behar.

Erosle eta hornitzaileen arteko harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzeko aliantza.

Basque Cruises enpresaren hornitzaileekin ere harreman berezi bat izango dugu.

Gure hornitzaileei material ezberdinen eskuragarritasuna bermatzen ahaleginduko gara, modu honetan, kalitatezko produktuak eskuratuko ditugu.

Gainera, aliantza hauen bidez, eksklusibotasuna izaten ahalegintzeaz gain, beti hornitzaile berdinekin jardungo dugunez, hauekin hitz egin eta beherapen eta deskontu ezberdinak izaten ere ahaleginduko gara.